

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onestea, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren 13.4.b) artikulua eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 31. artikulua lehengo paragrafoak hauxe adierazten dute:

“Ibilgailu automobilak, ontziak eta aireontziak Arabako Foru Aldundiak horretarako ezartzen dituen araei jarraituz balioetsiko dira”.

Bestalde, Zerga Bereziak arautzen dituen otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak 74. artikuluko b) letrako hirugarren paragrafoan zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren zerga oinarria arautzen da, eta adierazten du subjektu pasiboek, merkatu balioa zehazteko, zergaren sortzapen unean indarrean dauden batez besteko salmenta prezioak, Arabako Foru Aldundiak horretarako onetsiak, erabili ahal izango dituztela.

Zenbait foru dekretu bidez, ibilgailu eta ontzien batez besteko prezioen taulak onetsiz joan dira. Prezio horiek kontuan hartuko dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan eta zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian eragiketarako egiteko.

Foru dekretu honen bidez, ibilgailuen eta ontzien batez besteko prezioak ezarri nahi dira. Aireontziei dagokienez, ez da aldaketarik egon, hots, ez da batez besteko preziorik behar, ez baitago erabilitako aireontzien merkatu handirik. Egiten diren eragiketarako bakanak izanik, administrazioa banakako balioespena egiteko moduan dago.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Martxoaren 21eko 14/2019 Foru Dekretuak -ibilgailu eta itsasontzien batez besteko prezioak ezartzen ditu ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako- I., II., III., IV. eranskinetan jasotzen dituen taulen ordez, foru dekretu honen I., II., III. eta IV. eranskinetan jasotzen direnak erabiliko dira helburu guztietarako.

2. artikulua. Foru dekretu honen bidez onesten diren batez besteko salmenta prezioak egiaztabide gisa erabili ahal izango dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren,

oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.

3. artikulua. Jadanik matrikulatuta dauden automobil, lur orotako ibilgailu eta motorren balioa zehazteko, foru dekretu honetako I. eranskinean ageri diren batez besteko prezioei foru dekretu honetan IV. eranskinean jasotako taulan eta instrukzioetan ezarritako portzentajeak aplikatuko zaizkie, erabilpen urteak eta, hala badagokio, ibilgailuaren jarduera kontuan hartuta.

4. artikulua. Aisiarako itsasontzien eta itsas motorren balioa finkatzeko, alde batetik ontzia balioetsi behar da, motorrik gabe, eta beste aldetik, motorra. Horretarako, foru dekretu honetako II. eta III. eranskinetan ezarritako balioak hartu behar dira eta balio horiei III. eranskinean erabilpen urteen arabera ageri den taulako portzentajeak aplikatu. Azkenik, balio eguneratuak batu behar dira, ontziaren balio osoa lortzeko.

5. artikulua. Balioa zehazteko arau berezia, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.

Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokionez, erregela hauek aplikatuko dira:

Lehenengoa. Foru dekretu honetako I., II. eta III. eranskinetan ageri diren batez besteko prezioei agindu honetako IV. eranskinean jasotako taulan eta instrukzioetan ezarritako portzentajeak aplikatuko zaizkie, erabilpen urteak eta, hala badagokio, ibilgailuaren jarduera kontuan hartuta.

Bigarrena. Arestiko lehenengo erregela kontuan hartuta kalkulaturako merkatu baliotik zeharkako zergen kuoten hondar balioa kendu behar da. Horretarako, honako formula erabili ahal izango da:

$$BI = \frac{VM}{1 + (\text{tipo}_{IVA} + \text{tipo}_{IEDMT} + \text{tipos}_{OTROS})}$$

Azalpena:

ZO: Garraiobide erabilien zerga oinarria zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian.

MB: Merkatuko balioa da, IV. eranskineko ehunekoak aplikatu ondoren batez besteko prezioen tauletan ageri dena.

BEZ_{tasa} : garraiobidearen lehen matrikulazio efektiboaren unean balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) dela-eta indarrean zegoen zerga tasa, bateko hainbestean adierazia, baldin eta matrikulazio hori BEZaren aplikazio lurraldean egin bada; edo garraiobide haren matrikulazioa egingo den lurraldean BEZa dela-eta eska litekeen zerga tasa, baldin eta lehen matrikulazio hori atzerrian egin bada.

ZGZ_{tasa} : garraiobidearen lehen matrikulazio efektiboaren unean eta lurralde eremuan zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia dela-eta indarrean zegoen zerga tasa, bateko hainbestean adierazia, baldin eta matrikulazio hori Espainian egin bada; edo garraiobidearen Espainiako lehen matrikulazioa egingo den unean eta lurraldean eska litekeen zerga tasa, baldin eta lehen matrikulazioa atzerrian egin bada.

Tasa^{BESTELAKOAK}: garraibidearen erosketa kargatu duten zeharkako beste zerga guztien karga tasak batzearen emaitza, bateko hainbestean adierazia, baldin eta merkatu balioan sartuta badaude.

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratzen denetik hamar egun igaro eta gero jarriko da indarrean foru dekretu hau.